

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

LURRALDE OREKAREN ETA LURRALDE ANTOLAMENDUAREN SAILA

114/2025 Foru Agindua, otsailaren 26koa. Amaia Kortabarria Arozena Donemiliagako Udaleko idazkari kontuhartzaile lanpostutik kentzea, berak hala eskatuta

Urtarrilaren 15eko 7/2024 Foru Aginduaren bidez, Amaia Kortabarria Arozena izendatu zen Donemiliagako Udaleko idazkari lanpostua bitarteko funtzionario gisa betetzeko.

2025eko otsailaren 21eko idazkiaren bidez, funtzionario horrek udalari jakinarazi zion borondatezko baja hartzeko asmoa zuela, 2025eko martxoaren 9tik aurrerako ondorioekin, eta Donemiliagako Udalak Lurralde Orekaren Zuzendaritzari helarazi zion, eta ondorio data horrekin kargutik kentzeko eskatu zuen.

Estaturako gaikuntza duten toki administrazioko funtzionarioen araubide juridikoa arautzen duen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuaren 56. artikulua ezartzen duenez, xedapen horren VI. kapituluaren aipatzen diren izendapenak egiteko eskumena duten organoek izendapena errebokatzeko eskumena ere badute. Artikulu bereko bigarren apartatuak ezartzen du izendapen edo errebokatzeko horiek egiten dituen organoak dagokion idatzoharra egin behar duela aipatutako errege dekretuaren 23. artikuluan adierazten den erregistro integratuan.

Estaturako gaikuntza duten toki administrazioko funtzionarioen araubide juridikoa arautzen duen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuaren xedapen gehigarrietatik hirugarrenean xedatutakoari dagokionez, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legeak hamahirugarren xedapen iragankorrean agindutakoa betetzeko, Arabako Foru Aldundiaren Gobernu, Antolaketa eta Araubide Juridikoari buruzko martxoaren 15eko 10/2023 Foru Arauaren 24. artikuluan jasotako eskumenak betez, eta horien indarrez dagozkidan ahalmenak baliatuz, honako hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Amaia Kortabarria Arozena Donemiliagako Udaleko idazkari lanpostutik kentzea, martxoaren 9ko ondorioekin, zeina bitarteko izendapenaren bidez betetzen baitzuen urtarrilaren 15eko 7/2024 Foru Aginduaren arabera.

Bigarrena. Foru agindu hau jakinaraztea Donemiliagako Udalari eta Eusko Jaurlaritzaren Toki Administrazioetik Harremanetarako eta Administrazio Erregistroetako Zuzendaritzari, dagozkion ondorioetarako, eta ALHAOn argitaratzeko agintzea.

Hirugarrena. Jakinarazten den foru agindu hau behin betikoa da administrazio bidean, eta haren aurka administrazioarekiko auzi errekurtsioa aurkez daiteke zuzenean Vitoria-Gasteizko administrazioarekiko auzietarako epaitegietan, bi hilabeteko epean, jakinarazpen hau jaso eta hurrengo egunetik aurrera. Hori guztia, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 123. eta 124. artikuluetan eta Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legeak 46. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko otsailaren 26a

Lurralde Orekaren eta Lurralde Antolamenduaren Saileko diputatua
LAURA PÉREZ BORINAGA

Lurralde Orekaren zuzendaria
JAVIER GORBEÑA GARCÍA